



II. MAILAKO TXAPELA JON REKONDORENTZAT

Leitzarrak herenegun Zestoan II. Mailako Euskadiko Aizkora Txapelketako finala irabazi zuen >7



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza

Asteartea
2009-09-08

VIIURTEA 1.770.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Animalien erakusketa ere izan zen herriko plazan; tartean, antzarak, astoak, txerriak, txerrikumeak,... SARA GOMEZ

LAUGARRENEZ ERE TALO EGUN JENDETSUA

LEITZA Plazaola Partzuergo Turistikokoak Taloaren Eguna antolatu zuten herenegun; talo txapelketa, erakusketak, herri kirolak,... izan ziren 5

Arantzazuko Amaren jaietako egun handia izango da gaurkoa

TOLOSALDEA Azken eguna izango da Alkizan, Bedaion, Elduainen eta Lizartzan 6



Ingurutxoak dantzatu zuten auzokideek Bedaion, herenegun. SARA GOMEZ



Herriko kaleak zeharkatu zituzten, kamera eta ertzainen presentzian. A. IMAZ

Herritarrek babesa erakutsi diote Kontsuelo Agirrebarrenari

LIZARTZA 'Lizartza utzi pakean, Kontsuelo etxera' lelopean manifestazioa egin zuten herenegun 4

Gizon bat atxilotu dute, bikotekidea jotzea leporatuta

VILLABONA Emakumea erietxera eraman behar izan zuten Ertzaintzak; gizona 32 urte ditu 4

argazki lehiaketa



bidali opor
hauetako
argazkiak!



sari
mundialak



NORA BIDALI?

tolosaldean@tolosaldekohitza.info helbide elektronikora edo
HITZAren Tolosako edo Leitzako egoitzetara

HITZA udako argazki lehiaketa

E Elkarrizketa**PAKO LARRAÑAGA** › Pako Larrañagaren osaba

«Euskal Herriko mapan Martutene non dagoen begiratzen hasia da Pako»

Alegia › Pako Larrañaga Espainiaratzea ahalbidetuko duen dokumentua iragan ostiralean sinatu zuten; urrian egingo dutela lekualdatzea espero dute.

INIGO TERRADILLOS

Alegiar jatorriko Pako Larrañaga Espainiaratzeako prozedura judicialak bete ditu Filipinetako Gobernuak, eta ondorioz, urrirako espero dute haren sendiaren etxetik gertuago izatea. Bi emakume hil eta bortxatzea egotzita biziarteko kartzela-zigorra ari da betetzen une honetan Larrañaga. Hain zuzen ere, iragan ostiralean sinatu zuten Filipinetako justizia ministroak Larrañagaren Espainiaratzea ahalbidetuko duen dokumentua, eta pauso berriaren aurrean, Pako Larrañaga osabak «pozik eta itxaropentsu» daudela azaldu du. **Denbora luzean itxaron eta gero, badirudi geroz eta gertuago dela ilobaren Espainiaratzea.**

Pozik gaude albiste berri honen aurrean. Baina, aspalditik espero genuena zen, iazko Aste Santutik, hain zuzen ere. Aste Santua igaro zen, uda, eta baita Gabonak ere. Beraz, urte honetan jarrita genituen esperantzak. Pauso berriak poz handia eman digu, segituan gertatuko baita. Urrian izango dela espero dute.

Zergatik bete dira une honetan Espainiaratzea ahalbidetzen duten baldintza guztiak?

Espainiako eta Filipinetako Gobernuen artean sinatu zuten akordioa medio, presoen arteko elkar trukaketa egitea posible da. Beraz, Pako Espainiaratzea posible da, filipinar preso bat hara eramango dutelako. Tramite horiek guztiak egin dituzte, eta orain denbora kontua baino ez da Pako gugandik gertuago egotea.

Pakok eta haren gurasoek nola hartu dute berria?



I. TERRADILLOS

Gaur [atzo] bertan hitz egin dut anaiarekin, eta oso pozik daude. Pako bera ere oso gustura dago, eta Euskal Herriko mapan Martutene non dagoen begiratzen hasia da. 2004ko otsailean heriotza zigorra ezarri zioten, gero 2006an hori indargabetu zuten, beraz jauzi handia izan zen hori bere bizitzan. Eta orain, berri hau, beraz, gustura dago. Bestalde, Filipinetako komunikabideek ez diotela ez Pakori ez eta gure familiari trataera egokia eman ere kontuan hartu behar da, ez baitute alde horretatik babelarik jaso, baina bai, ordea, Euskal Herriko norbanakoengandik eta komunikabideetatik, eta hori eskertzekoa da.

Martuteneko espetxean izango da orduan?

Guk Martutenen egotea eskatuko genuke Alegiatik hurbilen dagoelako. Dena den, protokoloren bat jarraitu beharko da, eta ziurrenik, lehendabizi Madrilen egon beharko du. Hortik aurrera ez dakigu zer gertatuko den.

Beraz, hurrengo pausoa Madrildik Euskal Herrira ekartzea lortzea izango litzateke.

Behin Pako Espainiaratzen dutenean Miguel Angel Moratinos Espainiako kanpo-arazoetarako ministroarekin eta Gobernuko beste hainbat ordezkariarekin elkarrizketak izango ditugu gaiaren inguruan. Orduan jakingo dugu zein egoeratan dagoen, eta zer egin daitekkeen.

Zuek beti defendatu izan duzue Pakoren errugabetasuna.

Guretzat errugabea da Pako, eta bere aurkako auzia eraman zen moduarengatik erakunde ugari salatuz, gainera. Akats nabarmenak izan zituen auziak, eta gogoratu nahi dut 35 lekuko ez zirela beran onartuak izan. Horiek Pakorekin zeuden beste irla batean, hil-keta ikaragarri hura gertatu zenean. Pako ez zegoen Cebun, Manilan baizik, 600 kilometrorra, hain

«Guk beti defendatu izan dugu Pako errugabea dela; gainera auzian akats handiak egon ziren»

zuzen. Gure ustez, behin Espainian, gauza hauek guztiak kontuan hartuko dituztela espero dugu guk, eta horrek bere alde jokatu duela.

Espainiaratzearekin soilik egoera aldatu egiten da.

Bai. Izan ere, Espainiako legediak ez du onartzen biziarteko kartzela-zigorra. Gehienez ere 30 urte bete daitezke. Pakok 13 urte daromatza espetxean, eta jarrera onarengatik murrizketak izaten direla kontuan hartuta urte gutxiaren buruan kanpoan behar luke. Murrizketa horiek handienak izatea nahiko genuke, baina, ez dakigu zehatz mehatz zer gertatuko den.

Hil eta bortxatu zituzten bi nesken gurasoek helegitea jarri dute sinatu berri den dokumentua dela-eta.

Helegitea jarri dute, baina ez dakit ibilbide handirik izango duen. Beraiek sententziak adosten zuten kalte-ordaina, hau da, 12.500 euro kobratu dituzte. Ulertzekoa da familia haren egoera, bi alaba falta baitituzte, eta nola hil ziren kontuan hartuta are gehiago. Baina horrek ez du zerikusirik Pakorekin, Pako errugabea baita. Familiak aspalditik zekien hitzarmen batsinatzeak zela Espainiaren eta Filipinen artean, guztiaren berri bazuten, beraz, ez du zentzurik orain helegite honek.

Edurne Pasaban Tibeterako bidean, 13. zortzimilako gailurra egiteko

Tolosa › Atzo abiatu zen espedizioa; urriaren 10erako espero dute gailurra zapaltzea. «Gogorra» izango dela esan du.

ERRERAKZIOA

Edurne Pasaban mendigoizale tolosarraren espedizioa Tibeterako bidean da. Atzo abiatu ziren, eta Shisha Pangma (8.046 m.) gailurra igotzea izango dute helburu, 13. zortzimilakoa, beraz.

Tolosarrak abiatu aurretik adierazi duenez, urriaren 10erako gailurra zapaltzea espero dute. Hala-ber, taldearengan «konfiantza osoa» azaldu du, eta espedizio gogorra izango dela badakiela: «Shisha Pangma lan handia eman didan gailurra da, egindako beste hiru saiakeretan zailtasun handiak izan nituen, eta utzi beharra izan nuen». Hegoaldeko aldetik egingo dute gailurterako goiera, alpino estilon.

14 zortzimilako bidea

Behin Shisha Pangma egini 13 zortzimilako batuko litzuke mendigoizale tolosarrak. Horrela, Hego-koreako Oh Eun Sun mendizaleak abuztuaren 3an egin zuen marka berdinduko luke. Gasherbrum (8.068 m.) gailurra izan zen, hain zuzen ere, 43 urteko hegokorearrak igon duen 13. zortzimilakoa. Xigenorik gabe gainditu zuen azken zatia.

14 zortzimilako bidean azken pausoa Annapurna litzateke Pasabanentzat. 2010eko udaberrirako espero du tolosarrak erronka hori gainditzea.



Edurne Pasaban tolosarra. I.T.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

G Gutunak

Herri(zain)-go sailburuari

Nire dudak argitze aldera, «euskal» poliziaren buru zaren aldetik, erantzun didazulakoa, idatzi honen bidez zugana zuzentzen naiz. «Euskal» polizia diot, izan ere herri «zain» deitzeak, hitzak berak duen esanahiatatik, egoki ez dela deritzot.

Hasteko, informatu naiz Madrildik asmatu rik ekitaldi bat galaraztera etorri zinetela. Asmatu diot; izan ere, Villabonan ez baitzen euskal presoan aldeko omenaldirik antolatu. Aurrez jakinaren gainean zeundeten, beraz, eta ondorioz, zuen helburua ez zen omenaldia galaraztea. Deialdia, Etxerat-ek hileko azken ostirale-tan bultzatu ohi duen elkarretarazterako egina zegoen. Pasa den abuztuaren 28an, dozena bat furgoi eta hamarnaka «euskal» polizia, armak eskuetan «espero» nituen herrian baina ez, ez genuen zuen «bisitarik» jaso. Ez behintzat Uztailaren 31n izan genuen moduko «bisitarik».

Zuen inbasio polizial, armatu eta lotsagabearen aurrean, inolako desgaziarik izan ez zedin, elkarretaratzea bertan behera gelditu zen. Beste behin, oinarriko eskubideak presentzia polizialaren bidez zapalduak izan ziren.

Ez dakit zer kontaktu dizuten zure poliziek baina Villabonan,

Uztailaren 31ko arratsaldeko 8 eta erdietako unea argitze aldera, hau zen egoera:

- Villabonako herriajaietan. Fes-tetako azken eguna.

- Villabonan, festa batzordeak ofizialki antolatutako ekitaldiak martxa «normalean».

- Zure poliziak, armak eskuetan Villabonako herrian. Villabonako plazan, hain zuzen ere. Zure Poliziaren presentzia beraz, festa gu-nean bertan. Nire lagunetariko barte-k esan zuen bezala, gaur Her-tzainak-en kontzertua plazan. Ez, «Ez dira betiko garai onenak» ez. Lotsagarria benetan.

- Eraiki berria den ondoko pla-zan, festa batzordeak antolatutako rock maratonia.

- 200 lagun inguru kontzertuari begira eta barra ondoan hain zu-zen, zure poliziak armak eskuetan kontzertuari «begira». Barrako diru kutxa seguru zegoen behin-tzat.

Villabonako herriak kantuz eta dantzan erantzun zuen. *Gora Vi-llabona, gora herria!* kantatzen duen herri bat ez da inoiz hilko!

Esanda bezala, kontzertua pla-zan, jendea kontzertuari begira eta zure poliziak artean. Jendearen artean ezinegona eta urduritasuna nagusi.

Nere baitan, baina zertan ari dira? Zer nahi dute? Zer agindu zenien? Bistakoa zen ez zela inongo omenaldi nahiz ekitaldi politikorik

ospatu. Zer lortu nahi zenuten? Nor zen zure aurrean aurkeztu be-harrekoa? Zein zen zuen helbu-rua?

Zertara bidali zenituen zure poli-ziak, armak eskuetan Villabona-ko herriara? Rock maratonia parte hartzen zuten musika taldeen in-guruan galdezka? Horretarako ez dut uste hainbesteko armadarik bidalibeharrazuenenik; bestelaja-kinaraziko didazu zergatia. Nire ustetan, azkenaldi honetan Villa-bonako herrian uniforme gabe pa-seatzen ibiltzen diren bikote hor-rietako bat galdezka bidali eta nahikoa izango zen. Edo bestela, gure herrian bizi den zure «euskal» polizietako bati, festetako egi-taruaa eskatzea besterik ez zen-uen. Lotsagarria berriz ere.

Uztailaren 31ko jarrearekin jar-raituz, ekitaldi politiko guztiak galarazteko jarrearekin alegia, zergatik ez zenituzten galarazi abuztuaren 1 nahiz 2ko Villabona-ko deialdiak?

Egia da, zure polizietako bat «la-guntzen» saiatu zela. Baina ez, ez dugu nahi horrelako laguntzarik. Ezin baitut ulertu nolatan herri «zain» batek, herritar baten egoera lantzgarri baten aurrean bere aur-pegia bistarazteko zalantzak izate-aren ideia. Aurpegia kaputxa kendu ondoren ikusi nion baina begi-ueoro bistan zituen. Eta begi horiek hitz egingo balute gorroto hitzak besterik ez lituzkete igorri-

ko. Helburua lortu izanaren be-giak ziren. Ez dakit zein balore ira-katsi dizkiezuen zure poliziei baina jakizue zuen gorrotoa itsua bada Remik herri honenganako zuen maitasuna itsuagoa zela.

Azken asteetan Donostia, Ger-nika edo Bilbon (zure komunika-bide manipulatuak gehien zabal-du dituztenak aipatzearen, eta ez Euskal Herriko beste hainbat txo-kotan jazarpenik izan ez delako) jazotako gertaerek nire mina are-a-gotu besterik ez dute egiten. Villa-bonan eta Uztailaren 31n alkate funtzioak betetzen ari zen Remik jokatu zuen bezala jokatu ez balu, aipatu herrietan ekiditi ez ziren gertaerak Villabonan jazoko zirela nahiko garbi dut. Villabonako he-rritarrek jipoiuak eta atxilotuak izango ziren.

Zure poliziarri emandako klase-en tartean errespetu eta harrema-netarako baloreak irakasteak bate-re kalterik ez lieke egingo. Zure poli-ziak unerik latzenetan erabiltzen dituzten moduak onartezinak dira.

Lotsagarria, nazkagarria bene-tan zuen jarrera euskal herritarren artean. Debekuak, jipoiak, atxilo-ketak,... Hau al da zuen bakea? Ja-kizue zapaltzen den herri bat ez dela inoiz hilko.

Beste behin, utzi Villabona ba-kean. Utzi Euskal Herria bakean.

Jakizu, Abuztuaren 2ko gauean, Remiren hilotza udaletxean zego-

en bitartean, Villabonako plazara inolako lotsarik gabe Remiren al-deko kartelak kendu baina kendu gabe utzi zenuten *Alde Hemendik* zioen kartela, zuei zuzenduta ze-goela.

Lerro hauek aprobetxatu nahi nituzke zure egunerokotasuneko «lanean», Euskal Herriaren «alde-ko lanean», zure eserlekuetik gertu «lan» egiten duen eta gainera Villa-bonako zinegotzi eta alkate ohi den, Bakartxo Tejeriari hitz ba-tzuzk zuzentzeko.

Remiren heriotza, eta batez ere gertatu zen bezala gertatu zelako, udaletxean ezohiko bilkura dei-tzeko arrazoi ez izatearen zuen ar-gumentuak Remiren familiari nahiz neskalagunari argitzea es-kerretako nizuke. Jakizu egokiago ikusten dutela udaletxean Remi-ren heriotzaren aurrean erantzun bat ematea, zure kontzientzia la-saitzeko hileta elizkizunetako me-zatara joatea baino. Baina tira, orduko jokabideak ez du jada buel-tariki. Zure kontzientzia lasaitze-arren, esaiotzu behintzat bai Remi-ren heriotza saltsaren osagaietako bat zela esan zuen zure kide den Egibarri eta baita zure egunerota-suneko «laneko» eserlekuoko ger-tukoei, Remi osagai askotako sal-tsa zela. Remi, herri honen alde la-nean ari zela.

Haritz Etxeondo. (Remiren lagunetariko bat).



Batzar Nagusietako autobusa gurean da

TOLOSA ● Gipuzkoako Batzar Nagusietako autobusa Tolosara iritsi da. Larunbatera arte izango da Triangulon, eta herritarrei erakunde honen berri ematea izango da bere helburua. Hain zuzen ere, 09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era izango da bertaratzeko aukera. Atzo egin zuten ekimen hone aurrezpena, eta ekitaldian izan zen Rafaela Romero Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria Tolosako Udal ordezkariaren batera. Romerok ekimenaren garrantzia azpimarratu zuen, «horrela he-

rritar guztiak izango dutelako gure jardunaren berri». Hala, guztiak gonbidatu zituen autobusetik igarotzera. Bestalde, Tolosak «bakearen alde duen konpromisoa» nabarmendu nahi izan zuen, herenegun gauean Le-keitioko batzokian izandako eraso gaitzestearekin batera. Jokin Bildarraz Tolosak alkateak bere aldetik, ekimena Tolosan egotea eskertu zuen. Azaldu zuenaren arabera, «Tolosak Gipuzkoan protagonismoa du, eta guztion artean lurralde orekatua egiten saiatzen ari gara». i.t.

Laburrak

Udal Musika Eskolan izena emateko aukera

TOLOSA ● Udal Musika Eskolan atzo hasi ziren ikasturte berriarekin, baina oraindik lekua dagoenez posible dela matrikula egitea adierazi dute. Asteleheneetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara egin ahal-ko da, edo bestela 943 65 15 93 zenbakira deituta.

'Biblioteca en guerra' erakusketa ikusgai

TOLOSA ● Aranburu jauregian ikusgai dago *Biblioteca en guerra* erakusketa, urriaren 3ra arte. Errepublika garaian eta 36tik 39ra hainbatak egindako lana liburutegiak sustatzearen alde ezagutu daiteke honen bitartez. 51 panel eta ikus-entzunezko batek osatzen dute erakusketa.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Emakume bat behar da adinezko pertsona bat zaintzeko. Interesatuek deitu 679 81 90 42 telefono zenbakira.

Ehunka lagunek eskatu dute Kontsuelo Agirrebarrena etxeratzea

Lizartza » Manifestazioa burutu zuten herenegun arratsaldean, 'Lizartza utzi pakean, Kontsuelo etxera' lelopean.

ERREDAKZIOA

Lizartzako festen baitan, Udal Alternatiboak antolatutako herenegun arratsaldean Kontsuelo Agirrebarrena herritarren eta ezker abertzaleko hautetsiaren aldeko manifestazioa, 'Lizartza utzi pakean, Kontsuelo etxera' lelopean. Agirrebarrena hilaren lehen espetxeratu zuten Ertzaintzak Martutenen, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz. 61 urteko lizartzarraren atxiloteta salatzen du ehunka herritar ateratzen zirela. Ertzaintzaren eta komunikabide ugariaren presentziarekin burutu zen manifestazioa. Ertzaintza batak kamera eskuan zue-



Herenegun Lizartzan egindako manifestazioaren une bat. A. IMAZ

la manifestazioko partaideak «banaka banaka» grabatu zituen.

Manifestazioaren bukaeran irakurritako idatzian, besteak beste,

Lizartzan «apartheid politikoa eta okupazio militarra denbora luzez jasaten» ari direla salatu zuten. «Hala ere ez gara kokildu eta ez

gara kokilduko» nabarmendu zuten eta herriko plaza «salaketa ugari betetzen» jarraituko dutela eta «herri honi irtenbideak eskaintzen ere».

Gertakari hauek «PSOEn ezina» agerian uzten dutela eta bere etorkizuna irudikatzen «aukera iritsi zaion herri honi lanabes guztiak kendu» nahi dizkiola eta «alternatiba guztiak itxi» nahi dizkiola gaineratu zuten.

Ezker abertzaleak azaldu zuten, «Ares, Lopez, Rubalcaba, Otola... guztiak ezingo gaituzte gelditu, Kontsuelo, Remi eta abar bezalakoek ez baitute amore ematen eta gu bide berean emango ditugu urratsak».

Ekitaldia amaitzerakoan berrakada bat eskaini eta txaloea eskatu zuten Agirrebarrenaren senitarte koentzat, «asko sufrizten ari baitira egun hauetan». Ekitaldia txalo zaparrada luze batekin bukatu zen.

Gizonezko bat atxilotu dute Villabonan bere bikotekidea jotzeagatik

ERREDAKZIOA

Ertzaintzak 32 urteko gizonezko bat atxilotu zuten herenegun Villabonan, bere bikotekidea jotzea leporatuta, Herrizaingo Saitetik azaldu dutenez. Atxiloteta 14:30ak aldera izan zen. Ertzaintzak abisua jaso zuen, bikotekideak emakume bat jipoitu zuela azalduz. Ertzaintza etxebizitzara azaldu zenean, emakumearekin topatu zen eta ertzainek azaldu dutenez, «erasotua izan zelaren arrasto nabarmenak zituen». Ertzaintzak gaineratzen duenez, emakumeak esan zien etzabaida baten ondoren bikotekideak jo egin zuela.

Horren ondoren, emakumea ambulategira lagundu zuten ertzainek, erasotzaileak eragindako zauriak sendatzeko. Hortik gutxira, etxebizitzaren inguruan atxilotu zuten ustezko erasotzailea.


Loatzokoek hasi dute ikasturtea

Musika » Eskualdeko zortzi herritan eman dituzte klaseak irakasleek; ikasturteak ekainaren 21era arte iraungo du.

ERREDAKZIOA

Loatzoko musika eskolako ikasleek atzo hasi zuten bere ikasturtea, eta ekainaren 21era arte iraungo du. Aurrematrikula epea maiztatu izan zen eta, beraz, dagoeneko matrikula gehiago ez dago egiterik. Hala ere, informazio nahi duenak Loatzoko musika eskolarajoz dezan.

Eskualdeko zortzi herritan eman dituzte klaseak: Anoeta, Alegia, Altzo, Aduna, Ibarra, Irura, Villabona eta Zizurkil. Eguerdia eta arratsaldetan jasotzen dituzte klaseak ikasleek, eskola orduetatik kanpo. Hizkuntza musikalaz gain, hainbat instrumentu ikas daitezke: biolina, biolontzela, bombardino, dultzaina, eskusoinua, gitarra, gitarra elektrikoa, baxua, klarineta, perkusioa, pianoa, saxofoia, trikitixa, tronboia, tronpetta, txistu eta zeharkako flauta. Horrez gain, talde instrumentala ere badute eta haur txikieneztat musika tailerrak daude.



Loatzoko ikasleen saioa Altzon. N.U.



Martin Lasa izan da sariduna

ALEGIA » Intxurre futbol taldeak egindako zozketaren zenbaki saritua 1503 izan da eta bere jabea Martin Lasa alegiarra izan da. Argazkian erdian azaltzen da Intxurreko Eneko Garmendia eta Santos Irazustabarrenekin batera. Donostiako Juanito Kojuan afaria bi lagunentzako, Maria Kristina Hotelean bi lagunentzako gaua, Igeldo Hotelean bi lagunentzako bazkaria eta 500 euro jaso ditu zenbaki saridunaren jabeak. HITZA

berria bekak 2009

NORENTZAT:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **zortzi beka**, horietako bat, bideo informatiboak lantzeko.

Ezaugarriak:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietzan

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beke bat**.

Ezaugarriak:

- Hamabi hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko azken eguna: 2009-09-08

Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragai

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

Eguraldi onak lagunduta giro ezin hobea Talo Egunean

Leitza » Talo Txapelketa erakusketak, artisaauk, herri kirolak... batu zitzaizkion Plazaolak antolaturiko festan.

ERREDAKZIOA

Plazaola Partzuergo Turistikoak Taloaren Eguna antolatu zuen herenegun Leitza. Eguraldi bikainak lagundu zuen festa gozatzen, etajende andana igaro zen herriatik goiz guztian zehar. Protagonista bai, taloa izan zen, baina haren inguruan beste hainbat ekintza ere izan ziren herrian, artisaauk, erakusketak, animaliak edo herrikirol saioak, esaterako.

Laugarren aldiz ospatu dute eguna eta urte urte indartzen doa. Villabona eta Saralegi herriko talogileek ireki zuten Talo Eguna 10:00etan. Gastronomiaren festa erraldoian ezti, sagardo, gaztak... bezalako produktuak ere izan ziren aukeran taloekin batera, baita beste hainbat erakusketa ere.

Hauen artean, animaliak izan ziren, antzarak, astoak, txerriak eta txerrikumeak esaterako.

Arto zuriketaren erakusketa ere izan zen eta bertaratuek garaiko usadio honen nondik norakoak gertutik ezagutu ahal izan zituzten, horretan aritu zen bikote bati esker.

11.00etan heldu zen eguneko ekitaldi nagusia, taloaren txapelketa, hain zuzen ere. Ez zen edonolako gainera, Nafarroako I. Talo Txapelketa izan baitzen. Txapelketaz gain, talo plateren erakusketa ere gin zuten, baita haurrentzako taloa egiteko tailerra ere. Honek bildu zuen jenderik gehien plazan, baina festa ez zen hemen amaitu. Taloaren usainaren bueltan, herri kirol saio paregabea ere izan zen ikusgai. Euskal Herriko Aizkolari Gazteen txapelketa izan zen plazan. Ondoren, Nafarroako Txinga-eroate Txapelketako txanda izan zen, eta azkenik, herri kirolen jaialdiarekin amaitzeko, Euskal Herriko Lokotx Biltze txapelketa egin zuten.



Protagonistak taloak eta euren egileak, talogileak, izan ziren plazan. SARA GOMEZ

TABAKALERA

Asteartetik igandera:
11:00 - 14:00
17:00 - 20:00

Sarrera doan
Bisita gidatuak :
18:00 (euskeraz)
19:00 (castellano)
Taldea : 620 767 095
www.tabakalera.eu

TABAKALERA
Duque de Mandas, 52
Donostia - San Sebastián

TABAKALERA SOINUTAN
Erakusketa eraikina zeharkatuz

Achim Wollscheid
Pe Lang
Will Schrimshaw
SONE
Leerraum []
Marcello Liberato
Mikel Arce
Patri Araujo
Juan José Aranguren
Edwin Van der Heide
Charlemagne Palestine
Francisco López

2009.07.11 - 09.27



Villabona eta Saralegi herriko talogileak lanean aritu ziren. SARA GOMEZ

AURTEN

EGURRA EMANGO DUGU

ABONA ZAITEZ

Azeriako Faxealeku 22, 1° - 940 44 44 28
www.gipuzkoabaitz.com

Amezketare finalerdietarako sailkatu da Hernaniri bi partida irabazita

Amezketare » Amezketarekin batera, nafarren arteko lehia, Irurtzun sailkatu da Arbizuri hiru partidak irabazi ostean.

ERREDAKZIOA

XX. Joxean Tolosa Txapelketako final-laurdenak amaitu dira. Aurrrera-Saiazek eta Lizartzak egin bezala, Amezketare eta Irurtzun dira finalerdietarako sailkatuak.

Amezketare finalerdietan

Ostiralean jokatuako partidetan kadeteetan, Lujanbio 16 - Gallurralde 18, Gazteetan, Arrieta 7 - Arzeluse 18 eta nagusietan Gorrotxategi 18 - Legarreta 14 egin zuten pilotariek. Honela, Amezketare, bi partidak poltsikoratuz, finalerdietarako sailkatu zen.

Larunbatean berriz, hiru partidak Irurtzunekoek irabazi zituzten. Kadeteetan Beraza 18 - Jaka 5, Gazteetan, Zabaleta 18 - Lukin 1 eta Nagusietan Armendariz 18 - Ezkurdia 12.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aizondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Lizartzan, Nazioarteko erara sega apustua ospatu zuten bi taldetan banatuta. ASIER IMAZ

Atzoko atsedenenaren ostean Arantzazuko Amaren jaietako egun handia gaur

Jaiak » Gaur da jaietako azken eguna Alkiza, Bedaio, Elduain eta Lizartzan. Bihartik aurrera Zizurkilgo jaien txanda.

ERREDAKZIOA

Pasa berri den asteburuan ere, eskualdeko hainbat herritan jai giroaz gozatzeko aukera izan da. Hala ere, gaur dute azken eguna Alkiza, Bedaio, Elduain eta Lizartzako festek. Zizurkilgo aldiz, Arantzazuko Amaren jaiak, bihar hasi eta igandera bitartean ospatuko dituzte.

Marka berriak Bedaion

Goizetik hasita marka berriak egiteko eguna suertatu zen igandeko Bedaion. 39 txirringularrak parte hartu zuten aurtengo XX. Txirringularrari igogera eta aurreko marka hautsi zuten, 14:41 segundotan jarritz. Jende asko bildu zen egunean zehar antolatu zituzten ekitaldietara. Herri kirolen aurretik, 18:30ean Bedaio ingurutxoan dantzatu zuten.

Herri kiroltan berriz, Aimar Irigoien erretilarraren txanda izan zen eta 137,5 kiloko kubikoarekin hiru minutuko tanda batean marka berria jarri zuen altxaldi bat gehiago emanez. Honela, Ize-ta II.ak 1996. urtean jarritako 20 jasoaldiko marka hausteak lortu zuten.

Alkizarrek ere txirringularrari igogera ikusteko aukera izan zuten goizean zehar eta baita hamaiketako ederra egin ere sardina eta txakoli-



Aimar Irigoienek Ize-ta II.aren marka hautsi zuen. HITZA

na dastatuz. Arratsaldean asto lasterketa herrikoia egin zuten mozturrotuta, baita beteranoren arteko XVIII. Pilota Txapelketaren finala eta bukatzeko erromeria izan zuten trikiti doinuek alaituta.

Lizartzan, hamarretarako herria girotzen hasiak ziren bertako gaiteroak. 11:30ean, herriko harrobikoen arteko pilota partiduez gozatzeko aukera izan zuten lizar-tzarrek eta hauen ostean baita zesta punta partidaz ere.

Bapo bazkaldu eta gero, arratsaldeko 18:00etan, Sega apustua izan zen ikusgai Nazioarte erara. Bi taldetan banatu ziren, alde batean, Naroa Geresta zizurkildarra, Joxe Gabirondo gazteluarra eta Iker lizarzarra eta beste taldean, Arrate legoretarra, Bixente Mitxelena oiartzuarra eta Joseba lizarzarra aritu ziren. Behin sega apustua bukatuta manifestazio bat egin zuten Kuntsuelo Agiribarrena herritarren atxilotzea sala-

tzeko. Bukaera, Gabezin taldearen emanaldiarekin izan zen.

Elduainen ere bertaratu zirenek sardinak, txakolina eta ardoarekin hamaiketako ederra egiteaz gain jarraian herriko pilotarien arteko partidak ikusi ahal izan zituzten. Arratsaldean aldiz, kale antzerkia eta dantza emanaldia ikusi ahal izan zituzten.

Gaurko egitarauak

Alkizan Meza Nagusiarekin hasiko dute eguna eta ondoren, gazte-txoenentzat toka txapelketa egingo dute. Bazkalduan berriz jubilatuen bazkaria Ostatu jatetxean izango da. Eta festei amaiera ona emateko, arratsaldeko 17:00etan brasildar musika eta kulturaren tailerra izango da Edson Goyaren eskutik.

Bedaion gaurko jubilatuen eguna dute eta Meza Nagusiaren ostean, hamaiketako egingo dute Peña eta Telleria bertsoariaren ber-

» ZIZURKIL

Bihar

■ **10:00.** Xiba: Haurrentzako herri kirolak Joxe Arregi plazan.

■ **11:30.** Meza Nagusia. Ondoren Buruhandiak

■ **19:00.** Zizurkilgo II. Kros Mistoa. Neska eta mutilez osatutako bikoteentzat.

■ **20:30.** Txupinazoa eta Melokotoiaren aurkezpena, Atxulondo kultur etxetik, Latzakarraputa blusaren eskutik. Ondoren kalejira trikitiaz alaiturik.

■ **21:30.** Herri afaria Joxe Arregi plazan.

■ **00:30.** Bizardunak taldearen kontzertua.

■ **03:00.** Karaokea.

tsuez lagunduta. 12:30ean, Laja eta Landakandarekin trikitixa eta 14:00etan bazkaria elkartean. Bazkalostean, arratsaldeko 17:00etan bertsoariaren bigarren saioa izango da eta ordubete gerago 18:00etan ipuin kontalaria txikieneztat. Festei amaiera 18:30ean Laja eta Landakandaren erromeriarekin emango diete.

Elduainen ere, azken festa eguna 11:00etan Meza Nagusiarekin hasiko dute. Ondoren, sabela beteko dute hamaiketako eginez Kontzeju tabernan. Arratsaldean, 16:30ean, herriko urteen eskutik antzerki az gozatzeko aukera izango da, *Ama begira zazu haizkolaria* lana antzeztuko dute. Ondoren Falkoneria ikuskizuna izango da eta eguna eta festak bukatzeko Gorriti eta bere animaliak izango dira.

Azkenik, Lizartza herrian ere jai giroaz gozatzeko aukera izango da. Gaurko eguna ospatzeko 10:00etarako goizdea deitu dute Karobitxulo trikitilari taldearekin. 11:45ean Txirrita Elkartean hamaiketako eskainiko dute eta sabela betetzen jarraitzeko 14:00etan helduen bazkaria izango da Ostatuan. Festei amaiera emateko, arratsaldean, Dantzazoka eta antzerkia izango dira.

Honenbestez, eskualdeko lau herri hauetan, festei agur esango diete datorren urterara arte. Eta zizurkildarrak festa gosez izango dira bihar hasiko baitituzte igandea bitarte luzatuko diren herriko jaiak.

Bihar Zizurkilgo jaien hasiera

Eguna Herriko txikienekin hasiko dute eta herri kirolak egingo dituzte Joxe Arregi plazan. Meza Nagusiaren ostean, buruhandiak aterako dira. Arratsaldeko 19:00etan II. Kros mistoa izango da bikoteentzat. 20:30ean txupinazoa jaurtiko dute eta jarraian melokotoiaren aurkezpena egingo dute Kultur Etxean Latzakarraputa blusaren eskutik. Ondoren kalejira izango da eta Joxe Arregi plazan elkartuko dira Herri Afaria egiteko. Gauerdian, Bizardunak taldearen eskutik kontzertua izango dute bertarututakoek eta goizaldeko hirurtean, eztriak berotu eta karaokean abesteko aukera izango da nahi duten guztientzat.



Jon Rekondo aizkolaria hurrengo urtean Maila Nagusian arituko da, atzo II. Mailako txapela lortu ostean. HITZA

Rekondo leitzarrak onenekin egoteko txartela eta II. Mailako txapela lortu ditu

Aizkora » Euskadiko Txapelketan lehen postuan gelditu zen leitzarra. Hurrengo urtean Maila Nagusian ariko da.

Mailara jauzi egin, eta iaiz jokatu zuen lehen aldiz II. Mailako finala, 5. sailkatu zelarik. Aurrez, 8. eta 9. postuan sailkatu zen 2006 eta 2007ko kanporaketetan.

Finalaren nondik norakoak

Zestoako pilotaleku-kirroldegian jokatu zen finala, eta ondoko sei aizkolariek jardun zuten lehian: Aitzol Atutxak (Dima, Bizkaia), 21 urte; Manuel Kañamaresek (Arostegi, Nafarroa), 45 urte; Jon Rekondok (Leitza, Nafarroa), 24 urte; Fausto Mugertzak (Mutriku, Gipuzkoa), 50 urte; Joxemari Telletxeak (Oiartzun, Gipuzkoa), 34 urte eta Joxe Ugarteburuk (Ezkiotsaso, Gipuzkoa), 53 urte. Kasik 400 ikusle bildu ziren.

Seiaizkolariek seinaenborebaki zituzten: bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi oimbiko. Lan hori hain

justu ere, Maila Nagusiko finaleko lanaren erdia da. Enborren hurrenkera hauxe izan zen: kanaerdiko, 60 ontzako, bi oimbikoak erreskadak, 60 ontzako eta kanaerdiko.

Bigarren enborrean hartu zuen aurrea leitzarrak. Handik aurrera ongi eutsi zion erritmoari, baita lehen postuari ere. Lehia aldiz, bigarren posturako egon zen, postu horrek ere txartela ematen baitzuen Maila Nagusira igotzeko. Amaieran, Atutxak bi segundoko alde ateratzen zion Joxe Ugartebururi.

Fausto Mugertzak iaizko postu berean amaitu zuen, laugarren. Telletxeak gelditu zen ondoren eta azken postuan Kañamarek.

Bestalde, Rekondok azken zapi urteotako laugarren denborarik onena egin zuela aipatu behar da, hau da, 21 minutu eta 15 segundo.

Gipuzkoako Txapelketa eta III. Mailako kanporaketa

Gipuzkoako Maila Nagusiko Aizkolaria Txapelketa Joxemari Olasagastik irabazi zuen iragan larunbatean Donostiako Trinitate Plazan. Igeldoarrak 50 urte ditu eta 12 aldiz irabazi du Gipuzkoako aizkolaria onenaren txapela.

Bigarren iaizko irabazlea gelditu zen, Iñaki Azurmendi. Olasagastik 14 segundoko alde ateratzen zion.

Hirugarren Luis Txapertegik amaitu zuen eta 4. eta 5. Jexuxmari Mujika ibartarra eta Joseba Otaegi zizurkildarra gelditu ziren.

Otaegi aurreten igo da maila nagusira II. Mailako finala uztailean irabazi ostean. Donostian azken postuan gelditu ondoren, mailari eusteko Lasari irabazi beharko dio buruzburuko lehian batean.

III. Mailako Txapelketa

Ugaitz Mugertzak irabazi zuen herenegun Orozkon III. Mailako Euskadiko Aizkora Txapelketako bigarren kanporaketa. Xabier Alkizalete asteasuarra laugarren postuan gelditu zen, irabazlearengandik 2:44ra. Xanti Olano leitzarra berriz bederatzigarren izan zen, 5 minutu eta 34 segundora.

Gutunak

Eredu estereotipatuak eta erasotzaileak gure herrietatik kanpora

Ostirala zen eta asteburuko legez batzuetara joateko asmoa azaldu genuen. Festak non, gu hara: El-duainera. Horrela abiatu ginen festa gogoz eta gustuko giroa topatuko genuelakoan ondoko herrira. Herriko plaza, txosna, kontzertuak... plan bikaina!

Herriko plazan jada kontzertua hasia zen, giro jatorrean. Plaza erdi beteta zegoen, eta tabernetan ere giro bikaina zegoen. Pote bat txoznan hartu, eta lehenengo kontzertua amaitu zen.

Bapatean, herriko plazak San Fermintan Iruñeako udaletxe plaza zirudien. Zer dago orain plazan? Galdetu genioen elkarri. Tabernetatik irten eta gu ere plazara jaitxi ginen, zer ote zegoen ikusteko asmoz. Hantxe topatu genuen eszenatoki gainean Swatzeneger bat, olio barnizatua eta aulki batekin «jolasean». Helduak, gazteak, gizonzakoak, emakumezakoak... Elduaingo herritarrek eta kanporakoak, denak plazan. Gaueko erreklamoa: *Striptease-aneska eta mutila*. Bazterreko gizonzakoak eta emakumezkoen irudi estereotipatuak agerian. Martinez jantzitako mutila, irudi gogorra eta autoritariora azalduz. Emakumea, aldiz, urre koloreko jantzi bat soinean zuela agertu zen herriko oholtzara. Emakumeoi urteetan inposaturiko edertasunaren irudi estereotipatuak erreproduzitzen.

Horrela, Euskal Herriko herriko festetan zoritxarrez ematen diren eraso sexistei jarraipena emanez, Elduainen hainbat gizonzako «stripteasaren beroaldiaren aitzar-

kian», ordurarteko giro jatorra hautsi, eta emakumezkoen probokatzen hasi zitzaizkien. «Ligoteo insano» hori ikusirik emakumezko bezala erantzuteko betebeharrak ikusi genuen, orduan eta orain. Izan ere, eurek erasotzaileek euren defentsan «striptease-aren beroaldiaren aitzakian» euren ikusirik konprentzioa eta protesta ez egiteko eskatzen ziguten.

Alde batetik, salatu nahi dugu herriko festa batzuetan horrelako ikuskizun lotsagarriak eta igtugarriak antolatzeak bere ondorioak ekartzen dituela.

Elduaingo herriko festak antolatzen dituztenei esan nahi diegu herritarrek herritarrentzat sortutako festetako egitarauaren barne, urte-etan salatzen arigaren irudi estereotipatuak erreproduzitzekoaren sustatzaile direla. Euskal Herri parekide eta justu bat lortze bidean horrelako jarrera sexistak ezinezkoak direla, eta jai herriko eta parekideen aldeko hautua egitea deno dagokigula.

Eta beste alde batetik, stripteasean parte hartu zenuten herritar guztiak, baina baita Euskal Herriko jaietan zehar ematen diren eraso aurrean beste aldera begiratu duzuen guztiak ere, jakin, intentsitate ezberdinetako eraso sexisten konplize bihurtzen zarelako. Hala nola, bazileoan, «ligoteo insanoan», ipurdiak ukitzen, stripteaseak ikusten..., azken finean eredu heterosexistak erreproduzitzen.

Beraz, emakumei zein gizoni, festa batzordeei zein udalei, rol, jarrera eta eraso sexisten aurrean autodefentsa feministarako deia luzatzen diezuegu.


Eraso sexistei erantzun!
Leitzaaldeko Bilgune Feminista.

Sukuntza nagusi eta Garmendia bigarren

ERREDAKZIOA

Leitzan herenegun herri kirol jaialdia ospatu zen Talo Egunaren baitan. Nafarroako Txingara-Eroate Txapelketa herritar batek irabazi

zuen, Miguel Angel Sukuntzak hain zuzen ere. Euskadiko Lokotx-biltze Txapelketa jokatu zen ondoren eta Eneko Garmendia baliarraindarra bigarren gelditu zen.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: S5-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tososaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tososaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tososaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tososaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tososaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tososaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tososaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tososaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Udaberri Dantzari Taldeak haurrentzako euskal dantza ikastaroak antolatu ditu hilaren 18tik aurrera, ostiral arratsaldeetan eta larunbat goizetan. Izen-ematea, egoitzan (Kondeko Aldapa 20, behe) hilaren 9tik 11ra, 17:00etatik 20:00etara.

Erakusketak

■ **Tolosa.** *Biblioteca en guerra* erakusketa dibulgatiboa Aranburu Jauregian.

Mendi irteerak

■ **Tolosa.** Alpino Uzturrek 13rako mendi irteera bat antolatu Orbaran hasi eta Berrendi (1.354 m), Goñiburu (1.464 m), Idorrokia (1.492 m), Abodi (1.533 m) mendiak igoz. Irteera, Santa Klaratik 07:30ean. Izen-ematea: 943 652789 edo alpinouzturre@hotmail.com.

Kirola

■ **Tolosa.** *Proba ezazu zuk zerorrek* lelopean, Udalak emakumei zuzendutako lasterketa entrenamendu ikastaroa antolatu du iaz bezala, doan. Informazioa eta izen-ematea, Usabal kiroldegian.

Irteerak

■ **Tolosa.** La Albercara (Salamanca) irteera antolatu du Harizpe jubitatu elkarteak irailaren 13tik 19ra. Izen-ematea, elkartearen bertan egin daiteke.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

HITZArekin, bost bidaiia aukeran

Eskualdea » Gaur hasita, irailaren eta urriaren harpidedun egiten direnen artean bidaiia ederra zozkatuko du HITZAK.

ERREDAKZIOA

Jende askorentzat oraintsu amaitu dira udako oporrak, eta irailarekin batera eguneroko kontuetara itzuli behar izan dute gehienek. Izango da, ordea, oraindik ere oporrekin edota bidaiia ederrekin amets egiten jarraitzen duenik.

Horiek, HITZAREN eskutik izango dute horretarako aukera, gaur hasi eta urriaren amaierara arte iraungo duen harpidetza kanpainari esker.

Izan ere, HITZA sortu zenetik zenbait urteigaro diren arren, gaur egun izango da eskualdeko euskarazko egunkaria oraindik etxean jasotzen ez duenik. Horiek erakarrri eta harpidedun egin asmoz abiarazi dute kanpaina, bateko eta beste ko HITZEN artean.

Bost bidaiaren artean hautatzeko aukera

HITZAREN harpidedun egin eta zozketa bidez bidaiia irabazten

» HARPIDETZA KANPAINA 2009

- **Hasiera.** Irailaren 8an.
- **Amiera.** Urriaren 31n.
- **Saridunaren izena Hitza.** Azaroaren 6an.

■ **Eskaintza.** Irailaren eta urriaren gutxienez urtebeterako harpidedun ordantzaile egiten diren harpidedun berrien artean, bidaiia zozkatuko da, eta saridunak hautatu ahal izango du aukeran izango dituen bost eskaintzen artean.



Lisboa edota Europako beste edozein hiriburu bisitatu ahal izango du saria eskuratzen duen harpidedunak. HITZA

duen lagunak, bost bidaiaren artean hautatzeko aukera izango du. Mallorcan, Tunisian edota Tenerifen zazpi gau igarotzeko aukera izango du alde batetik, mantenu erdian.

Bestalde, Europako edozein hiribururen artean bat hautatu, eta bertan lau gau igaro ditzake, gosariarekin.

Azkenik, balneario batean aste-

burua igaro eta bertan erlaxatzeko tratamendua ere hautatu dezake, etxera edo lanera eduki lasaituta itzuli ahal izateko.

HITZA guztietako harpidedun

berrien artean egingo da zozketa, eta irabazlearen izena azaroaren 6an, ostiralarekin, jakinaraziko da, HITZAN bertan. Ez galdu aukera eta egin zaitez harpidedun!

A Agurrak



Urte askoan!

Araitz eta Iradi Uria Lizarra. Araitzek 7 urte bete zituen abuztuan eta Iradik 4 urte beteko ditu gaur. Etxeko guztien partetik muxu potoloak.



txokoa hitza

HITZAK harpidedunentzat **sarrerak** ditu

Peio ta Pantxoak

«40 URTEZ GUREKIN KANTUZ»
(Zuzeneko grabaketa)

Irailak 11 • Ostirala
Tolosako Leidorren



sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira harpidedun kodea eskura duzula

sarrerak